


8. ATALA: FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresa enpresa ekoizle bat izango da. Gure xede nagusia etekinak lortzea izango da, eta horretarako lortutako sarrerak kostua baino handiagoak izan beharko du. Bigarren mailako xede bat ere izango dugu, jendearen osasunarekin lotuta egongo dena.

Lehenengo, hornitzaileen bidez lehengaiak lortuko ditugu, hauek baitira gure enpresaren oinarri. Ondoren, Tolosan edukiko dugun lokalean ogiak ekoizteko prozesuari hasiera emango diogu. Behin ondasunak eskura ditugula, bi modutara salduko dugu. Batetik, bezeroentzat irekita egongo den dendan. Bestetik, salmenta areagotzen bada, etxez etxeko banaketa ere eskainiko dugu. Modu horretan, etxetik atera ezin dutenek edo dendara joateko baliabiderik ez dutenek aukera izango dute gure ondasuna eskuratzeko. Banaketa hori guk egingo dugu, bezeroei tratu zuzena eta espezializatua emateko asmoz. Lan hori burutzeko furgoneta bat edukiko dugu.



Okindegi batek izan dezakeen arazo nagusi bat lehengairik gabe geratzea izango litzateke. Hori gertatuz gero ezingo genuke gure ondasuna ekoizti eta beraz, ez genuke ezer salduko. Arazo hori ez gertatzeko, ditugun lehengaiak bukatu baino lehen egingo dugu lehengaien eskaria.

Beste arazo bat, hornitzaileek lehengaiak behar ditugun egunerako ez ekartzea litzateke. Horregatik, gure lehengai guztiak bi hornitzaile ezberdinengandik eskuratuko ditugu. Hau da, irinaren zati bat hornitzaile bati eskatuko diogu eta beste zatia beste hornitzaile batengandik lortuko dugu. Horrela inoiz ez gara hornitzaile gabe geratuko eta ez dugu hornitzaile batekiko guztizko menpekotasuna izango.

SALMENTA ARRUNTA: Hasieran edukiko dugun salmenta izango da, eta pixkanaka pixkanaka salmenta haztea pentsatu digu.

SALMENTA HANDITZEN DENEAN: Gure enpresaren hazkundearen ondorio gisa izango da, hau da, gero eta ondasun gehiago ekoizteak hainbat garapen eragingo ditu. Garapen honek, bai langileegan eta baita lokalarengan ere eragina izango du.

SALMENTA ARRUNTA	SALMENTA HANDITZEN DENEAN
<ul style="list-style-type: none"> - Ogia saltzen den lokal berdinean egingo dugu. Horretarako lokal handi bat beharko da. - Ogiaren etxez etxeko banaketa eskaintzeko aukera emango dugu. - Enpresa hiru pertsonen artean sortuko dugu. - Beraz, enpresa martxan jarri aurretik bakoitzak bere aurrezkietatik diru kantitate bat jarri beharko du. Aurrezki horiekin nahikoa izango ez balitz, partikular batek edo banku batek utzi diezaguke dirua, eta ondoren kapital hori interesekin batera itzuliko genuke. 	<ul style="list-style-type: none"> - Ogia egin eta saltzen den lokala bereizi egin daitezke, hau da, salmentak handitzen direnean ogia lokal batean egingo dugu eta salmenta bereizitako beste batean. - Ogiaren etxez etxeko banaketa eskaintzeko aukera emango dugu. - Salmentak gora egiten badute hiru pertsona gutxi izango dira ogi guztiak ekoitzi eta saltzeko. Beraz, pertsona gehiago beharko ditugu dena aurrera eramateko. - Beraz, enpresa martxan jarri aurretik bakoitzak bere aurrezkietatik diru kantitate bat jarri beharko du. Aurrezki horiekin nahikoa izango ez balitz, partikular batek edo banku batek utzi diezaguke dirua, eta ondoren kapital hori interesekin batera itzuliko genuke.